



## **8.AKTA**

2005eko abuztuaren 22an egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko abuztuaren hogeita bian.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.  
Lucía Querido Noceti a.  
Jesús M<sup>a</sup> García Garde j. eta  
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Lucía Querido Noceti zinegotziak bere ezin etorria adierazten du oporretan baitago.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 13:30etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

### **1.- Aurreko batzarraldiko akta irakurri eta onartzea: 7.zk.a, 05-06-22koa.**

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

### **2.- Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntzen aldaketak.**



Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2005eko ekainaren 8an uztailaren 29an eta abuztuaren 12an aurkeztutako proposamenak, EJ 2/05 eta EJ 1/05 proposamenei dagozkienn Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoak aztertu ondoren; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

## ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat EJ 2/05 eta EJ 1/05 proposamenei dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean dauden onuradunenak eta bertan jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz

BIGARRENA.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako partidan sartzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Kontu-hartzailletza Sailari ematea.

### **3.- "P. Donibaneko Lezo-Bide kalean 1. fasearen urbanizazioa" obraren 5. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 5

Obra: "P. Donibaneko Lezo-Bide kalean 1. fasearen urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO (58.797,79 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-1634/04 xedatutik ordainduko da.

### **4.- "P. Donibaneko Lezo-Bide kalean 1. fasearen urbanizazioa" obraren 6. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: "P. Donibaneko Lezo-Bide kalean 1. fasearen urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa)



CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA BERROGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMASEI EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMO (141.456,83 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-1634/04, 1635/04, 1636/04 eta 1637/04 xedatuetatik ordainduko da.

### **5.- "Puntas Pasealekuaren urbanizazioa" obraren 5. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 5

Obra: "Puntas Pasealekuaren urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA LAU MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA HAMAR ZENTIMO (104.150,90 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-1592/04 eta D-1591/04 xedatuetatik ordainduko da.

### **6.- "Puntas Pasealekuaren urbanizazioa" obraren 6. ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: "Puntas Pasealekuaren urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO (26.281,25 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-1593/04 xedatutik ordainduko da.



## **7.- "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea" obraren 9. eta azken ziurtagiria.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA,- Ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 9 (azkena)

Obra: "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. Fasea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta (Arkitektoa)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA BOST MILA EHUN ETA BI EURO ETA LAUROGEITA BAT EURO (25.102,81 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-378/04 eta D-175/04 xedatuetatik ordainduko da.

BIGARRENA.- Hirigintza Sailari eskatzea birpartzelazioaren behin betiko likidazioa egiteko, ondoko gastuak barne hartuta: urbanizazio-gastuak (bideria, espaloien zintarriak, kanalizazioak, saneamendu-lanak, lorezaintza-lanak...); urbanizazio-proiektuak idatzi eta bideratzeko gastuak; eta birpartzelazio edo konpentsazio-gastuen zenbateko osoa; Ekonomia Sailak ordaindu beharrekoak ordainarazi eta itzuli beharrekoak itzul ditzan.

## **8.- "Molinao Errekaren urbanizazioaren 1. Fasea. P. Antxo" obraren 8. Ziurtagiria.**

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 8

Obra: Molinao Errekaren urbanizazioaren 1. Fasea. P. Antxo

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal Arkitektoa) eta José M<sup>a</sup> Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.



Zenbatekoa: EHUN ETA HOGEITA BOST MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (125.394,68 euro).

Indarrean dagoen udal aurrekontuko D-1241/04 eta 1242/04 xedatuetatik ordainduko da.

### **9.- Obra-baimena: Euskadi Etorbidea, 55.**

ARANTZA GONZALEZ GARCIA, Euskadi Etorbidea, 55 zkko. eraikinean gas-instalazioa eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

#### ERABAKI DU

LEHENA.- ARANTZA GONZALEZ GARCIAri eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea bezalako aparatuek balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.

- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailearen 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikulua araberak, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (eskitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatuak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

HIRUGARREN.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekursoen berri ematea.

LAUGARREN.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzailtzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 3.400 eurokoa da.

- Aktan jasota gera dadin, Xabier Pombo abstenitu egin da eraikineko jabeetako bat delako.

### **10.-Obra-baimena: San Pedro, 34.**

Gai hau mahai gainean geratu da, ondoko txostenekin osatzeko:

- a) Ordenazioz kanpoko jardueretan konponketa txikiak baimentzeko aukerari buruzko azterketa juridikoa.
- b) Arraunlari kalean etorkizunean haztegi-jarduerak jartzeko izan daitezkeen kokalekuen azterketa.
- c) Egungo industria-erabilerak etorkizunean oinezko-gune bihurtzeko dagoen proiektuarekin nola bateratu daitezkeen aztertzea.

### **11.- Larrabide baserria segregatzeko lizentzia-eskaera.**

2005eko apirilaren 7ko erregistro-datarekin Jon Mikel Sistiaga Carranzak Larrabide baserria segregatzeko lizentzia eskatu zuen, ondoko banaketa lortzeko: batetik, lehenengo solairua eta dolarea, eta bestetik gainerako jabetzak. Ondoko agiriak aurkeztu ditu: jaraunspena banatzeko eskritura; eta landa-higiezinaren erroldan egindako kontsulta, haren titulartasuna duten lursailei buruzkoa, plano bat ageri da 23 eta 24 zk.ak dauzkatela adierazten duena.

Ez du aurkeztu Udal Ordenantzen 033.1. artikulua eskatzen duen berariazko dokumentazioa.

Jaraunspena banatzeko eskrituraren kopiaren arabera, eranskinak segregatu nahi dituen finka honako hau da:

*“ RÚSTICA. – El piso primero de la bodega, la totalidad del edificio lagar de las antepuertas situadas al lado sur y este de la casería Larrabide, (...) y de los pertenecidos de la misma casería Larrabide, los dos trozos siguientes: 22,17 centiáreas de terreno manzanal (...) y 6,17 centiáreas de argomal (...) Todo ello forma parte de la siguiente finca: CASERÍA llamada “LARRABIDE”, con sus pertenecidos, (...) consta la casa de dos cuerpos de edificio y separados por un muro medianil, estando destinado uno de ellos a vivienda y cuadras y el otro a bodega y depósito de cubas. El edificio habitable ocupa una superficie de 76 m<sup>2</sup> y consta de planta baja, dos pisos altos y desván. El edificio bodega se compone de planta baja y dos pisos altos, ocupando 57 m<sup>2</sup> de terreno solar.(...) Las antepuertas de la casa, que miden una superficie según el registro de la propiedad de 220 m<sup>2</sup> y real de 576,58 m<sup>2</sup> (...). Sus pertenecidos consisten a saber: (...)*

Ondasun higiezinaren zerga-erroldaren arabera, Larrabide baserria hirugarren batzuei zatika saldua izan zen, Arau Subsidiarioak onartu aurretik; eta eskatzaileari jabetzaren % 29,09 geratzen zaio.

Interesdunak oinordekotzan jaso zuen baserriko jabetzaren zatia Larrabide 1.06 HJEaren barruan dago, eta eskrituren arabera, 28,34 areako hondar-azalera du. Hala ere, interesdunak bi partzela segregatu nahi ditu, bien artean 1,9652 Ha dituztenak; zati horiek ez daude jaraunspeneko ondasunen zerrendan, eta gainera Jaizkibel 1.05 HJEaren barruan daude.

Larrabide eremuko partzelazioei egiteari dagokienez, indareran den planeamenduak ondokoa xedatzen du:

### “3.2.3 Partzelazioa

*\* Bizitegi-erabilerak har dezakeen gutxienezko partzela 1.500 m<sup>2</sup>-koa izango da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren nekazaritza alorrean eskudun den Departamentuak agindutako bideragarritasun eta azalera eskakizunak betetzen dituen nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenera lotuta egongo da. Ustiapenera destinatutako finkak gutxienez partzelaren 1.500 m<sup>2</sup>-ko zati bat izan behar du, nahitaez bizitegia eraikitzeko izango den arearen barruan. Horren eraginetarako, arearen kanpo eta barruko partzelaz osatu ahal izango da aipatu finka.*



*\* Ezarri beharreko edo jadanik ezarrita dagoen eraikinak partzelari adskribatuta egon beharko du erregistralki.*

*\* Egun bizitegi-erabilerarik ez duten eta beren perimetroaren %25a gutxienez Larrabideko landabideari aurre ematen dioten partzelek, hau da, bide horrekin muga egiten dutenek, bakarrik hartu ahal izango dituzte etxebizitza-erabilera berriak, beti ere lehen pasartean adierazitako baldintzak betzen badituzte.*

*Partzelazio eta zatiezingarritasun ondorioetarako, Larrabide Arearen partzelak Z.L.T.B.-ko 257. artikuluan eta honen ondorengoetan arautzen dira.*

Jaizkibel 1.05 HJEari dagokionez, beronen ordenantza xehakatuak debekatu egiten dute bertan bizitegi-eremu berriak garatzea, berariaz baimendutakoak izan ezik.

Tokiko Gobernu Batzarra da lizentzia-eskaerei buruzko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa, txosten erabakigarria aldekoa ez denean, eskumenak eskuordetzeko alkatetzaren Dekretuaren arabera (2003ko ekainaren 19koa).

Horiek horrela eta kontuan hartuta Tokiko Korporazioetako Zerbitzuen Araudiko 9. artikulua, Tokiko Gobernu Batzarrak hurrengo akordioa

#### ERABAKI DU

LEHENA.- Jon Mikel Sistiaga Carranza jn.ari lizentzia ukatzea, Jaizkibelen dagoen Larrabide finka segregatzeko; planeamenduak eremu horretarako ondokoa xedatzen duelako: “*Hor dagoen eraikinak lursail osoari atxikia egon behar du erregistroan*”. Hala ere, interesdunak ez du egiaztatu segregatu nahi dituen finka horiek Larrabide baserriaren jabetzakoak direnik.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

#### **12.- Zehapen-espeditzea ixteko ordua ez errespetatzeagatik. Ibiza Taberna.**

#### EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Alkateak 2004ko maiatzaren 13ko ebazpenaren bitartez Ibiza tabernako titularra den Francisco Delgado de la Torreren aurka zehapen-espediteari hasiera ematea erabaki zuen. Udaltzaingoak egindako ordutegi-aktaren arabera, taberna 2004ko otsailaren 29an goizeko 1:50etan irekita zeukan, eta barruan hamabi pertsona zeuden, eta edariak zerbitzatzen ari ziren.



Aurreko horrek ondoko arauak urratzen ditu: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurreko aldatzen duena. Ibiza bezelako tabernak igandetan 00:30etarako itxiak egon behar dira.

**BIGARRENA.**- Inputatuak 2004ko ekainaren 7an alegazio idatzia aurkeztu zuen, eta urriaren 4an hirigintzako teknikariaren akordio-proposamenean ezetsi egin ziren.

**HIRUGARRENA.**- Entzuna izateko izapidearen barruan, inputatuak azaroaren 11n idatzi bat aurkeztu zuen eta bertan alegatzen zuen ez zela ordutegi-araudia urratu. Bide batez, hiru lekuko aipatzen ditu berak alegatzen duena berretsiko luketenak. Ondorengoak dira: Angel Alvarez, Hernanikoa, (667 750137 telefono zenbakia); eta Ivana Gutierrez y Carlos García, ezkontideak, Oretetan bizi direnak (670 241522 telefono zenbakia).

**LAUGARRENA.**- Zehapen espedienteetan frogak alegazioekin bat proposatu behar dira. Halere, instruktoreak onartzea erabaki du, inputatuari bere burua modu egokian defendatzeko aukera emateko.

**BOSTGARRENA.**- Lehen lekukoarekin froga egiteko otsailaz geroztik hiru alditan telefonoz gelditu bagara ere, ez da agertu, inolako arrazoirik alegatu gabe.

Ezkontideek lan-ordutegia dela eta, agertu ezin zuten, galdera-sorta bidali genien ekainaren 27an, eta emandako epe barruan, Ivana Gutierrez Chaparrok erantzuna aurkeztu zuen. Beste ezkontideak ez du galdera-sorta erantzun.

Lekukoak adierazi du 1:45etan ez zegoela taberna jarduerarik, baina barruan zeudela taxi baten zain, eta ordurarte ez zela udaltzainik bertan sartu.

#### FROGATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Frogatutzat jotzen da Francisco Delgado de la Torre, Ibiza Tabernako titularra dela, eta taberna 2004ko otsailaren 29an goizeko 1:50etan irekita zeukala, barruan hamabi pertsona zeudela, eta edariak zerbitzitzen ari zirela.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENA.**- Aipatutako gertaerak eta inputatuaren erantzukizuna egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2004ko otsailaren 29an egindako aktaren bitartez.

Alegazioak egiteko emandako epean aurkeztu zuen idatzian, gainera, baieztatu egin zuen tabernan aipatutako orduan -01:50etan- jendea zuela.



296/1997 Dekretuak arautzen ditu ixteko orduak, eta Ibiza Taberna bezelako establezimenduak egun horretan 01:30tarako itxita egon behar duela xedatzen du. Izan ere, gertaera larunbatetik igandera bitartean izan da, eta ez igandetik astelehenera. Halere, tramitazioan zehar nahasketa egon bada ere, arau-urraketa izan den ala ez jakiteko ez du eraginik.

**BIGARRENA.-** Lekukoen froga egin ondoren, egiaztatu dugu 1:30etatik aurrera jarduera bazegoela. Adierazpen horiek Udaltzaingoak egindako txostenari ez diote funtsik kentzen (no desvirtúan).

Gainera, Auzitegi Konstituzionalak apirilaren 26an emandako 76/1990 epaian adierazi zuenez, funtzionario publikoek euren karguen jardunean egiten dituzten adierazpenak, egin dituenaren inpartzialtasun eta profesionalitatean daude oinarrituak, eta ez dago haiei buruzko zalantzarik, printzipioz behintzat. Adierazpenon egitasun presuntzioa agente jarduleak zuzen-zuzenean ikusi dituen ekintzei edo agentearen aurrean zuzen-zuzenean egin diren froga bidez lortutako ekintzei bakarrik dagokie. Hala gertatzen da, hain zuzen, kasu honetan.

Espedientean dauden administrazio-akten edukiari buruzko egitasun-presuntzioa, nondik atera diren egite frogatuak, froga bat da administrazio-zehapena ezartzen duen erabakiaren oinarri izateko balioa duena beste froga gehiagoren beharrik gabe, baldin eta ez badira aurkeztu eduki hori baliogabetuko duten aurkako frogak, eta berauen praktika eta proposamena ustezko erantzulearentzako karga da (iuris tantum presuntzioa) (Auzitegi Gorenaren Epaiak, 1991ko ekainaren 25koa eta 1990eko ekainaren 4koa, besteak beste).

Kasu honetan inputatuak udaltzainen baieztapenak ukatu ditu, baina ez du frogarik aurkeztu haiek baliogabetzeko. Agente jarduleen akten egitasun presuntzioa baliogabetzeko ez da aski interesdunaren adierazpena, ez baitu balio aktaren froga balioa suntsitzeko (Auzitegi Gorenaren Epaiak: 1989ko ekainaren 1ekoa, 1987ko abenduaren 15ekoa, 1988ko urtarrilaren 28koa, besteak beste).

**HIRUGARRENA.-** Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 legearen 34 g) atalaren arabera, honako gertaera hauei zigor arina dagokie: “ikuskizunen hasiera edo amaiera atzeratzea, edota ikuskizun nahiz jolas jardueretako lokalak irekitzeko eta ixteko orduak ez errespetatzea”.

**LAUGARRENA.-** Urraketa horren erantzulea Ibiza tabernako titularra den Francisco Delgado de la Torre da.

**BOSGARRENA.-** Aipatutako legearen 35.3 eta 36 ataletan zehazten da lege urratze arintzat jotako kasuetan aplikagarri direla 200.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionatua eta egokia da 30.000 pezetatako isuna jartzea, kontuan hartuta ez dela herritarren salaketarik jaso.



SEIGARRENA.- Espediente honi amaiera emateko organu eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da; izan ere, Alkate Andreak 2003ko ekainaren 19an horren gain utzi baitzuen, besteak beste, zehapen-espeditenteei ebazpena emateko ahalmena.

#### AKORDIOA

LEHENENGOA.- Ibiza tabernako titularra den Francisco Delgado de la Torre Jauna zigortzea eta 180,30 eurotako isuna ezartzea, 4/1995 legearen (azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituena) 34 g). atala urratzeagatik. Ibiza bezelako tabernak egun horretan 1:30tarako itxiak egon behar dira, eta 01:50etan irekia zuen, barruan hamabi pertsona zeuden, eta edariak zerbitzatzeko ari ziren

BIGARRENA.- Interesdunari aditzera ematea akordio hau irmoa dela eta beraren kontra ezin duela administrazio-errekurtsorik ezarri, eta soilik Administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakeela bi hilabeteko epe barruan.

### **13.- Zehapen-espeditentea, onartutako mailatik gora zarata ateratzeagatik. Euskadi Etorbidea, 37.**

#### EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Hirigintzako Zinegotzi Ordezkariek, 2004ko abenduaren 9ko ebazpenaren bitartez, Fernando Arnaiz Ardanazen aurka zehapen-espeditenteari hasiera eman zion; izan ere, Udaltzaingoak 2004ko irailaren 6an egindako zarata-neurketa aktaren arabera, Euskadi Etorbidea 37. zbk.ko 4. solairuko 55. ateko etxebizitzan (han agertu baitziren bertakoen salaketa jaso ondoren), egiaztatzen zen 4. solairuko B etxebizitzan ondoko zarata mailak sortzen zituela:

2004ko irailaren 6ko 22:50tan:

Logelan.....	dB (A)
Egongelan .....	dB (A)
Beste gelatan.....	52,5 dB (A)

Etxebizitzetara irits daitezkeen zarata mailak Ordenantzaren 4.4 artikuluan jasotzen dira:

Egunez (8etatik 22etara)Gauez(22etatik 8etara)

Egongeletan.....	45 db (A)	35 dB (A)
------------------	-----------	-----------



Logeletan .....40 dB (A)    32 dB (A)  
Zerbitzu eta gune  
amankomunak .....45 dB (A)    45 dB (A)

**BIGARRENA.**- 2004eko abenduaren 20an jakinarazi zitzaion espediente honi hasiera ematen zion ebazpena, eta bertan alegazioak idatziz aurkezteko hamabost eguneko epea eman zitzaion. Hurrengo egunean aurkeztutako idatzian zarata berak sortu zuela onartzen zuen, baina pentsio txikia kobratzen duenez, isuna kentzeko eskatzen du.

**HIRUGARRENA.**- 2005eko martxoaren 14an inputatuari, entzuna izateko tramitean, hirigintzako teknikariaren akordio-proposamena jakinarazi genion, eta emandako hamabost eguneko epean ez du alegaziorik aurkeztu.

#### FROGATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Frogatutzat jotzen da Euskadi Etorbidea 37. zbk.ko 4. B-an dagoen Fernando Arnaiz Ardanazen etxebizitzatik 2004ko irailaren 6an 22:50etan ondoko etxebizitzara zarata-maila iristen zirela:

Logelan..... dB (A)  
Egongelan ..... dB (A)  
Beste gelatan.....52,5 dB (A)

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENA.**- Aipatutako gertaerak eta inputatuaren erantzukizuna egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2004eko irailaren 6an egindako aktaren bitartez. Alegazioak egiteko emandako epean inputatuak bere erantzukizuna onartu du.

**BIGARRENA.**- “Deserosotasunak edo trabak sortzen, osasun edo garbitasun baldintza normalak aldatzen edo pertsona edo gauzentzat arriskua eragiten dituzten jardueretatik herritarrak babesteko udalaren jarduera” arautzen duen Ordenantzaren (G.A.O. 1985ko azaroaren 8koa) 6.4 e) artikulua baimenduta dagoen mailetatik gora bibrazioak sortu eta zarata eragitea urraketa oso larritzat jotzen du.

**HIRUGARRENA.**- Urraketa horren erantzulea Fernando Arnaiz Ardanaz da.

**LAUGARRENA.**- Ordenantzaren 6.5 artikulua urraketa oso larriei ezarriko zaien zigorrak ezartzen ditu, eta 10.000 eta 15.000 pezetatiko isuna jarriko zaiela arautzen du.

**BOSGARRENA.**- Inputatuak bere erantzukizuna onartu duenez gero, egokia da gutxieneko isuna jartzea.



SEIGARRENA.- Salatzailea jubilatua denez eta errenta txikia jasotzen duenez, 20 €ko kopurua proportzionaltzat jotzen da.

ZAZPIGARRENA.- Zehapen-espediente honi bukaera emateko organo eskuduna Gobernu Batzarra da, Alkate Andreak bere eskumenak eskuordetzen dituen 2003ko ekainaren 19ko Ebazpenaren arabera, beraz bertako zinegotzien aho batez hurrengoa

#### ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Fernando Arnaiz Ardanaz zigortzea onartutako mailatik gora zarata ateratzeagatik, eta 20 euroko isuna ezartzea. Hori guztia, aipatutako Ordenantzaren (G.A.O. 1985ko azaroaren 8koa), 6.4 e) artikulua baimenduta dagoen mailetatik gora bibrazioak sortu eta zarata eragitea urraketa oso larritzat jotzen duelako.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta aditzera ematea akordio honen aurka ez dagoela administrazio-errekurtsorik jartzerik, soilik Administrazioarekiko Auzi-errekurtsioa ezarri dezakeela bi hilabeteko epean.

#### **14.- Baimen-eskaera, San Pedro kaleko 7 eta 9 z.k. etako etxebizitza tutelatuak egiteko proiektua aldatzeko.**

Pasaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen 51. Artikulua arabera, eraikigarritasuna gora edo behera egokitu ahal izango da inolako hirigintza-espeditierik bideratu gabe, baldin eta eraikigarritasuna definitzen duen plana onartu ondoren egiaztatzen bada erreferentzia bezala erabili den azaleraren datua okerra dela.

Ustekabean hainbat zirkunstantzia gertatu da, San Pedro kaleko 7 eta 9. z.k. etako eraikinaren eraikigarritasuna eta profila ematean kontuan hartu ez zirenak, hain zuzen ere segurtasunagatik alboetako kontrahormak mantentzea komeni dela; eta zirkunstantzia horiengatik eraikinaren eraikigarritasuna txikiagotu egin da.

Zalantzarik gabe herri-interesekoa da ahal den apartamentu kopuru handiena mantentzea, zertarako erabiliko diren kontuan hartuta: 3. adinekoentzako etxebizitza tutelatuak izango dira eta gure gizartean plaza horien eskaera handia da.

Eraikigarritasuna ez da handitu, soilik kokalekua aldatu da eta estalkiaen profila errespetatu egin da gainera. Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan diren zinegotzien aho batez, ondokoa

#### ERABAKI DU

LEHENA.- Pasaiako Zaharren Egoitzako Fundazio Publikoaren zuzendari Jokin Amondarain Arratibel jn.ari lizentzia ematea San Pedro kaleko 7 eta 9. z.k. etako eraikinean apartamentu tutelatuaren eraikuntzan aldaketak egiteko; zehazki ondoko aldaketak egingo dira: 5. atariaren alboko

gunean estalkipeko solairua egin, beheko solairuetn galtzen diren bi etxebizitzak berreskuratze aldera. Hori guztia, Fernando Fernandez del Rincon artitektoak aurkeztutako proiektu aldatuaren arabera, 2005eko uztailaren 12koa. Ondoko baldintzak bete beharrekoak dira:

➤ Aldaketa izan duen obra hasi aurretik, ondoko hutsuneak konpondu behar dituzte:

1. Sestraren kotak zehaztu behar dira, eraikinean sartzeko irisgarritasunari buruzko araudia bete dadin.
2. Kotak ezarrita dituen planoak aurkeztu behar dira. Eraikinaren barruko ibilbide nagusiek, gutxienez, 1,50 m-ko zabalera izango dute eta sotoko pasilloek 1,20 m-koa.
3. Adierazi egin behar dira azalera erabilgarriak eta eraikitako azalera guztira zeintzuk diren.
4. Sotoko lokalen erabilera zein den falta da: komunak, galdara-gela, mantentze lanetako gela, garbitasuneko gela... Ateak jarriko dira sarbidea kontrolatzeko.
5. San Pedro 5 zk.ko horma bitartekoaren ondoan dagoen bigarren solairuko apartamentuko logela, banakako gisa azalduko da, bere azalera erabilgarria kontuan izanik.
6. Zorroten, shunt eta gainerakoen bideak irudikatu egingo dira eta aretoetako argiztapena eta aireztapena bermatuko dira.

**BIGARRENA.-** Interesdunari erabaki hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

### **15.- Jarduera lizentzia eskaera. Erregai horniketa Donibaneko kaian.**

Javier Errasti Flaño jaunak, REPSOL PETROLIO-PRODUKTUEN KOMERTZIALA SArenean, 2005-07-14an jarduera-lizentzia (behin-behineko lizentzia) eskatu zuen itsasontzietarako erregai-hornitegirako jarduera jartzeko, Donibaneko kaiko portuaren eremuan, Koxtape arraunkluba eta badiaren artean dagoen orubean.

Era berean, tramitatzen ari da eremu horri dagokion Pasaiako Arau Subsidiarioetako Elementuen Aldaketari buruzko espedientea, eta proposatzen diren tankeak proposatutako pabiloien ondoan kokatzen dira, gizarte-ekipamendurako izango den partzelaren ondoan eta bizitegi-gunetik ez oso urruti.

Donibaneko kaiaren Hiri Areari dagokion hirigintza-fitxak agertzen duenaren arabera, Plan Bereziak arreta berezia jarriko die gertuko bizitegi-eremuei eta planeko gizarte-ekipamenduari.



Jarduera jarri nahi den eremuan, jarduera bera bizitegi-guneetatik eta jartzekoa den gizarte-ekipamendutik urrutiago jar daiteke.

Lur-arrasaren gainean eraikitzekoa den eraikuntzak edo etxolak arriskuan jar ditzake geroko errodadurak edo proposamenean proposatzen diren jardueretarako iraganbideak.

Jardueraren berariazko materialaren zamalanak ez dira arrazoitzen, eta ez da agertzen bertako industria-erabilerako berezko jarduerak baldintzaten ote dituen.

“Pasaiako badiaren hiritartze-proiektua, Donibaneko kaia” eremupean gainezarri da itsasontziak hornitzeko puntua.

Dokumentazioak ez du argitzen jarduera jartzean izan ditzakeen ondorio edo zortasunak.

Udal teknikariak aurkako iritzia eman du 2005eko abuztuaren 2an egindako txostenean.

Jarduera HIRI LURrean dago eta Sailkapen Orokorra honakoa da: PORTUKO INDUSTRIA EREMUA.

Pasaiako AASSetako 170. art.ak ezarritako kodifikazioaren arabera, 632 epigrafea dagokio, komertzial hirugarrena, 1. kategoriatik kanpoan utzia eta 2. eta 3. kategorietan sartua, mugak dituela. Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren (JGOKAA) barne dauden proiektuak nahitaezkoak dira.

Horretaz gain, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ezartzen duen Jarduera-sailkapenean jaso dago jarduera hau, II. eranskineko jarduera-zerrendaren eraginpean dagoena eta honela sailkatua dagoena: “*g) sute-arriskua edo leherketa-arriskua duten jarduera edo instalazioak, erregai, objektu edo material biltzeagatik*”.

EAEko Ingurumenaren Babes Orokorreko 3/1998 Legearen 55. eta 61. artikulua hartu dira kontuan.

Jarduerarako azalera honela banatua dago: 17,35 m<sup>2</sup> azalera eta 317,04 m<sup>2</sup> azalerapean.

Jarduera egokitzeko lanen aurrekontua 150,447,66 €koa da.

Espedientean dagoen txosten erabakigarria aurkako denean, ahalmenak eskuordetzeko 2003ko 19ko Alkate-Dekretuaren arabera, lizentzia eman ala ez erabakitzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da, beraz bertako zinegotzien aho batez hurrengoa



## ERABAKI DU

LEHENA.- Javier Errasti Flaño jn.ari, REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS, S.A.ren izenean, instalazio-lizentzia (behin-behinekoa) ukatzea Donibaneko kaiko portuaren eremuan itsasontzietarako erregai-hornitegirako jarduera jartzeko; eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko apirilaren 1ean hartutako erabakia berrestea, alderdi guztietan.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

### **16.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.**

#### **A) Soledad Calvo Azkue and.ak egindako ondare-erreklamazioa**

SOLEDAD CALVO AZKUE and.ak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa egin du 2004ko abenduaren 23an irrist egin eta erori zela-eta. Udaltzaingoaren eta Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailaren txostenak aztertu ditugu eta horietan adierazten da Trintxerpeko azokara sartzeko eskaileretan luzetarako banda irristagaitzak daudela. Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan diren zinegotzien gehiengoz ondokoa

## ERABAKI DU

LEHENA.- SOLEDAD CALVO AZKUE and.ak egindako erreklamazioa ez onartzea, goian aipatutako txostenetan oinarrituta eta kontuan hartuta ez dela kausazko loturarik ezarri udal zerbitzuaren funtzionamendu eta kalte-ordaina eskatzen den lesioaren artean.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

#### **B) Correduría de Seguros Múgica & Aburuzak, Aitor Alkorta Echeverriaren izenean egindako ondare-erreklamazioa.**

MUGICA & ABURRUZA CORREDURIA DE SEGUROS S.L.k, Aitor Alkorta Echeverria aseguruaren izenean, erreklamazioa egin du 2005eko otsailaren 17an SS-7.297-BJ matrikula zk.a duen ibilgailuan izandako kalteengatik; kalteak Esnabide kaleko 92. Zk.parean eragin zizkion haizearen eraginez erori zen hauteskunde-propagandako kartel batek. (Eskaerari erantsita kalteen konponketaren balorazio-txostena aurkeztu dute, 491,58 euroko balorazioa). Horrez gain, lekukoaren adierazpena eta Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanan Saileko buruak egindako txostena

aztertu dira. Horiek guztiak kontuan, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan diren zinegotzien aho batez, ondokoa

#### ERABAKI DU

LEHENA.- ONARTZEA MUGICA & ABURRUZA CORREDURIA DE SEGUROS S.L.k, Aitor Alcorta Echeverriaren izenean egindako erreklamazioa, eta faktura aurkezten duenean 491,58 euro ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

#### **C) Lydia Gonzálezek egindako ondare-erreklamazioa.**

LYDIA GONZALEZ PESADO and.ak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa egin du, C-3435-BGV matrikula zk.a duen ziklomotorean eta zenbait arropatan izandako kalteengatik; izan ere, Martimuno kaleko irteeran dagoen oinezkoentzako pasabidean gurpilak irrist egin zion udaletxeko langileek botatako hondarrarekin, hain zuzen ere udal ibilgailu batek isuritako likido hidraulikoa estaltzeko bota zuten hondar hori.

Aurrekariak eta espedientean dagoen gainerako dokumentazioa aztertu dugu, baita Udaltzaingoak eta Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailak egindako txostenak. Horiek guztiak kontuan, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan diren zinegotzien aho batez, ondokoa

#### ERABAKI DU

LEHENA.- Zati batean onartzea LYDIA GONZALEZ PESADO and.ak egindako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa; eta faktura aurkeztu ondoren 649,26 euro ordaintzea, ziklomotorea ordaintzeko (489,26 euro), eta arropatan eta bere gauzetan izandako kalteak ordaintzeko (160 euro), horien salmenta-prezioa kontuan hartuta eta kalteak izan zirela frogatu ondoren.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

#### **D) César Hernández Hernándezek egindako ondare-erreklamazioa**

CESAR HERNANDEZ HERNANDEZ jn.ak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa egin du 2005eko apirilaren 27an Eskalantegi kaleko 9. Zk. parean baliza-zinta batekin estropozu egin eta erori zela-eta.



Udaltzaingoaren txostenean adierazten da baliza-zinta eremu horretan jarri zela bertan ibilgailurik utz ez zezaten; Zerbitzuetako Sailak arekak garbitzeko lanak egin behar baitzituen.

Erreklamatzailerak egunez erori zen, hesia hor zegoela ikusteko adina argi zegoenean.

Galtzada ibilgailuentzako gunea da, soilik horretarako sortua, eta bertatik ezin dira oinezkoak ibili.

Galtzadaren bi aldeetan espaloiak daude eta erreklamatzailerak adierazi zuen tokitik metro gutxira oinezkoen pasabidea dago; beraz, kale horretan oinezkoak lasai asko ibil daitezke galtzada zapaldu beharrik gabe.

Istripuaren kausa bakarra da erreklamatzailerak okerreko tokitik ibili izana, eta beraz zerbitzu publikoaren funtzionamendu eta erorketaren arteko kausazko lotura hautsi egiten da. Horiek kontuan, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan diren zinegotzien aho batez, ondokoa

## ERABAKI DU

LEHENA.- CESAR HERNANDEZ HERNANDEZ jn.ak egindako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa ez onartzea, goian adierazitako argudioetan oinarrituta.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

### **E) José Ramón Fernández jn.ak egindako ondare-erreklamazioa.**

JOSE RAMON FERNANDEZ PUERTA jn.ak erreklamazioa egin du SS-9.357-AU matrikula zk.a duen ibilgailuan izandako kalteengatik: ibilgailua aparkatuta zegoen Ferreteria Gonzalez, Vulcano eta Pescados Rodolfo biltegiak bota ondoren geratu den orubean 2005eko otsailaren 14an; Portuko Agintaritzaren eremuan dagoen Pesqueras Tellería biltegi-erakinetik hainbat harri erori ziren. Kalte-ordainetan 1.372,28 euro eskatzen dizkio udalari.

Kalteen kopuruak ez du gainditzen Erantzukizun Zibil Orokorreko polizan hitzartutako frankizia (3.000 euro). Horiek guztiak kontuan, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan diren zinegotzien aho batez, ondokoa

## ERABAKI DU



LEHENA.- Erreklamazioa onartzea eta beraz, JOSE RAMON FERNANDEZ PUERTA jn.ari 1.372,28 euro ordaintzea, A-852/05 partidatik.

BIGARRENA.- Erabaki hau Hirigintza Sailari jakinaraztea, egokiak diren segurtasun-lanak agindu ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Udaltzaingoiari jakinaraztea, eremu arriskutsua sokaz hesitu eta horren erabilera galarazteko, ondasunetan kalterik izan ez dadin eta pertsonak zauritu ez daitezen.

LAUGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

### **17.- Udaltzainei saritu.**

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren Epaiaren epaia jakinarazi da, 1814/03 falta-epaiketaren autoak apelatzeko izapidean emana. Horietan zigorra ezarri diete Udaltzaingoko U-77 eta U-79 agenteei, lesio-falten egile gisa; hain zuzen ere, hilabeteko zigorra ezarri diete, eguneko 2€ ordainduz, eta horrez gain, solidaritatez Oscar Dos Santos Sanderi 95 €ko kalte-ordaina eman behar diote, sortutako lesioengatik. Era berean, egotzi zaien irainengatik hutsegitetik absolbitu egin dituzte.

Udaleko idazkari-letratuak epaitutako gertakariaren aurrekari eta inguruabarren berri eman du eta kritikatu egin da epaia. Horiek guztiak kontuan, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, Pertsonal eta Administrazio Batzordeak 2005eko apirilaren 20an egindako irizpenaren bitartez ondorengoa:

### **ERABAKI DU**

LEHENA.- Jardun duten agenteei zorionak ematea euren jarduketagatik. Akatsik gabekotzat jo dute, zehazki, Udaltzaingoa jarduna berari dagokion ikuspuntutik.

BIGARRENA.- Agenteak saritzea ezarri zaien kale-ordain eta zigorren kopuru berean.

HIRUGARRENA.- Udaltzainburuari gertaera sakon azter dezan eskatzea eta agenteak prestatzea euren jarduketa hobe dezaten, era honetako inguruabarrak gertatzen direnerako.



- Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak ondokoak erabaki ditu:

### **18.- Koxtape Arraun Elkarteari dirulaguntza.**

Koxtape Arraun Elkartek Pasaiako Portuko Ikurrinagatik memoria eta dagozkien faktura justifikatzaileak entregatu dituela konprobatutakoan, 2005eko abuztuaren 11ko Gazteria eta Kirol Zinegotziaren proposamena kontuan harturik Tokiko Gobernu Batzarrak zinegotzien aho batez hurrengoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Koxtape Arraun Elkarteari 12.000 euroko ez ohiko dirulaguntza ematea Pasaiako Portuko II Ikurrinarako.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko "106004814521003 dirulaguntza berezia Pasaiako estropadak" partidatik eta A-934/05 Baimendutik ordainduko da.

### **19.- Bidasoako XXI. Jardunaldi Pedagogikoak antolatzeko dirulaguntza.**

2005eko uztailaren 29ko Kultura eta Hezkuntza Batzorde Informatiboak egindako proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, hurrengoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- IRUNGO BERRITZEGUNEARI 250 euroko dirulaguntza ematea, *Bidasoako XXI. Jardunaldi Pedagogiko*-en antolakuntzarako.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko 05-481-422-00-01 partidatik eta A-936/05 Baimendutik ordainduko da.

### **20.- Eskola Kontseiluko partaideei 2005eko 1. seihilabeteko dirulaguntza.**

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2005eko uztailaren 29an egindako proposamenez, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,



## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Jarraian agertzen diren hezkuntza erakundeei 2005 urteko lehenengo sei hilabetei dagozkien ondoko dirulaguntzak amatea:

- KARMENGO AMA H.I.....36.419,50 Euro
- KARMENGOTARRAK  
GURASO ELKARTEA.....2.933,63 Euro
- PASAIA-LEZO LIZEOA..... 18.003,40 Euro

---

GUZTIRA.....57.356,53 Euro

Hori guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko 05-481-422-00-01 partidatik eta A-935/05 Baimendutik ordainduko da.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legezkiokkeen errekurtsioekin..

### **21.- 6/05 kontu eta fakturen erlazioa.**

Tokiko Gobernu Batzarrak honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 05/6

Zenbatekoa: BOSTEHUN ETA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (512.867,62 euro).

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:30etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.